

Buruhaundiak eta txistu musika

Orain urte batzu, honelako Programa batean, hainbat herritako ospakizunetan kalera ateratzen dituzten erraldoiez aritu nintzen. Eskuetan daukagun programa honetan *erraldoien* seme-alabez ihardungo dut. Mitologia grekoaren arabera *epotxak* dira. Epotxa geldiezin horiek, iruditzen zait, gure kaleetan algara eta alaitasuna sortarazten duten *buruhaundiak* direla.

Epotxak lurpeko izakiak ditugu. Ilunpearen Herrian bizi ohi dira. Argiaren Eremura zuhaitz barruko eskailerak igoz heltzen dira. Argia ikusi bezain laster bihurrekeriatan eta jolasean hasiko zaizkigu: *buruhaundiak* dira.

San Juan gure zaindariaren omenezko jaietan, *Erraldoiak eta Buruhaundiak* ikustean, irudimena haurtzarora joaten zaigu. Gogora datorkigu *buruhaundi* haiek sortarazten ziguten beldurra. Bazen hala ere, bestaldeko jarrera erakusten zuen buruhaundia, buruhaundi zintzoa alegia.

Maskuria arin erabiltzen zutenen artean gogoan dut *Carapastel* deitzen genion buruhaundi txepela. *Verrugas eta Casero*, bata gaiztoa eta bestea okerragoa. Ez zaizkit ahaztu oraindik *Verrugasen* aurpegi itsusia eta *Caseroren* adiera gabeko jarrera.

Haurrentzat *Charlot* zen nolabaiteko samurtasuna adierazten zuen buruhaundia.

Charlot umez inguratuta ibiltzen zen eta haur horiek maite zuten. Makila eskuan zuela, Nafarroako dultzainarien edota herriko txistularien doinuei jarraituz ibiltzen zen.

Tolosa XVII. mendean *erraldoiak* egin zituztela badakigu. XVII. mendean bertan, 1658 urtean, Migel Leitza txistularia agertzen zaigu.

Izenpetze laburrak egiten jarraituz eta neronek ezagutu ditudan garaietan bukatuz, XVIII. mendean, azken herenean txistulari durangar bat aurkitzen dugu, Hilarion Bengoa hain zuzen ere.

Badakigu 1794. urtean José Artsuaga izendatu zutela musikari kobleri. XIX. mendeko bigarren hamarkadan Frantzisko Artsuaga «Txango»k jarraituko ditu bere aitaren pausuak. Arrazoi politikoak zirela bide, «Txango» txistularia, 1823an, Bilbon jarri zen bizitzen. Hala ere, ez du ahaztuko jaioterra eta urtero agertuko da San Juan jaietan.

Handik urte batzutara, 1887. urtean Blas Alberdi izango da herriko txistularia. Txistulari ona eta tolosarrentzat gogoko laguna.

Federiko Alberdik atabalari plaza 1912. urtean utzi zuen eta haren ordez Valeriano Mokoroa jarri zen. Valerianok euskaraz idazten zuen, antzerki lanak, olerkiak, etab.

Musika arloan erretiraturik zeudela behin baino gehiagotan hitz egin nuen Federiko Alberdi eta Valeriano Mokoroarekin.

Migel Martinez de Lezea, Leandro Zabalak utzitako tokian jarri zen 1926. urtean. Nik oroitzen dudan lehenbiziko txistulari banda, herriko txistulari banda alegia, honako hauek osatzen zuten: Migel Martinez de Lezea, Alberto Alberdi, José Chinchilla eta Esteban Iribas (atabalaria).

Santuaren omenez antolatutako jaietara itzuliz, esandakoak atzera begira agindako aipu batzu besterik ez dira izan; haietako batzuk dagoeneko urruti samar dugun haurtzaroan dituzte eginak erroak.



Buruhandiak eta txistu musika = Cabezudos y música de txistu / Juan Garmendia Larrañaga. – En : *Tolosa San Juan Jaiak 1993*. – Tolosa : Tolosako Udala, 1993. – 18 p. : il. ; 21 cm. – P. 3-4. – OC. T. 4, p. 447-449